

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI ZINEA

'Downton Abbey', gaur

Ostiraleri bezala, *Downton Abbey* pelikula ikusteko aukera izango da gaur, gaueko 22:30etan hasita, Biterin. ■

■ GOIZUETA ESKU PILOTA

Iker Salaberriak debuta, gaur

Egun berezia izanen du gaur Iker Salaberria pilotari goizuetarrak. Profesional mailan debutatuko du, Tolosako Beotibar frontoian. Arratsaldeko 17:30etan hasita izanen da jardunaldia. Beñat Rezustarekin batera debutatuko du Elezkano Ila eta Bikuñaren kontra. ■

■ ASTIGARRAGA FUTBOLA

Preferenteek, gaur

Mundarroko preferenteko taldeko mutilek Zarkumendegin jokatu dute gaur, arratsaldeko 16:00tan hasita, Gure Txokoaren kontra. ■

■ HERNANI GAZTETXEA

Jantoki Soziala, gaur iluntzean

Kontrakantxa gaztetxearen eskutik, Jantoki Soziala izango dute gaur, gaueko 21:00etatik aurrera, gaztetxean bertan. ■

■ HERNANI PRESOK

Kontzentrazioa gaur, Zinkoenean

Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek deituta, kontzentrazioa egingo dute gaur, Zinkoenean. Ohi bezala, iluntzeko 20:00etan izango da. Herritarrak deitu dituzte beraiekin bat egitera. ■

■ HERNANI ELUR TXORI

Sagardo Txapelketa bihar, elkartean

Bihar egingo dute Elur Txori elkarteak sagardo txapelketa 20:00etan hasita, elkartean. Plazak beteta daude. Bestalde, bazkide berrientzako izenematea ireki du Elur Txorik, eta bi baldintza jarri ditu: 45 urtetik beherakoa izatea, eta bi bazkideren abala aurkeztea. ■

■ URUMEA ELIZA

Santu Guztien eguna gaur, hildakoena bihar

Gaur da Santu Guztien eguna, eta bihar berriz, Hildakoena. Hori dela eta, hainbat elizkizun eskainiko dituzte gaur eta bihar Urumea bailaran, hala nola, Hernani, Astigarraga eta Ereñotzun.

SANTU Guztien Eguna gaur da, eta bihar, berriz, Hildakoen Eguna. Hori horrela, ohiturari jarraituz, hainbat elizkizun antolatu dituzte Urumea bailaran; eliza eta kanposantuetan izango dira, ohi bezala.

Hernanin, hiru elizkizun izango dira gaurkoan. Agustinetan lehenengoa, goizeko 09:00etan; Floridako San Jose Langilean izango da bigarrena, 11:00etan; eta hirugarrena, San Joan Bataiatzailean, eguerdiko 12:00etan. Bihar berriz, bi meza izango dira: goizeko 09:00etan, Agustinetan, eta 19:00etan, San Joan Bataiatzailean.

Ereñotzun, gaur izango da zita nagusia, 10:00etan, San Antonio elizan.

Eta azkenik, Astigarragan bi elizkizun antolatu dituzte: lehenengoa, goizeko 10:30etan Andre Maria elizan, eta bigarrena, 12:00etan kanposantuan. Bihar hildakoen omenez kanposantuan eskainiko dute elizkizuna, 11:00etan. ■



Atzo, loreak saldu zituzten plazan, bihar hilerrira eramateko.

■ HERNANI INAUTERIAK

Inauterietako kartel lehiaketa, martxan

Martxan da inauteriak iragartzeko kartel lehiaketa, eta proposamenak aurkezteko azken eguna abenduaren 9a izango da. Abenduaren 31n jakinaraziko dute irabazlearen izena.

URTERO bezala, martxan da dagoeneko 2020ko inauteriak iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketa. Ohi bezala, edonork parte hartu dezakeela adierazi du Udalak.

Haiek dagoeneko aurkeztu ditzakete proposamenak, eta abenduaren 9a izango da horiek aurkezteko azkeneko eguna.

Komunikazio ez-sexista bermatzea, ezinbestekoa

Lehiaketan parte hartzeko hainbat baldintza bete behar dira: jatorrizko lanek 32cm-ko zabalera eta 48cm-ko altuera izango dute, eta ezinbestekoa da formatu digitalean aurkeztea. Gainera, kartelak, *Hernaniko inauteriak 2020* izenburua izan behar du. Komunikazio

ez-sexista ere bermatu beharko du.

300 euroko saria, kartel irabazleak

Behin epea bukatuta, inauterietako Jai Batzordeak aurkeztutakoen artean, lau aukeratu ditu, ondoren, herritarrek bozkatu ditzaten.

Bozkatzeko epe hori abenduaren 11tik 26ra izango da, eta bi bide izango dituzte herritarrek botoa emateko: internet bidez, edo Biterin bertan. Urtea bukatu aurretik, abenduaren 31n, jakinaraziko da irabazlearen izena.

Sari bakarra izango da; kartel bozkatuenak 300 euroko balea jasoko du, Berriako dendetan erabiltzeko. ■

Bozkatzeko epe hori abenduaren 11tik 26ra izango da, eta bi bide izango dituzte herritarrek botoa emateko: internet bidez, edo Biterin bertan. Urtea bukatu aurretik, abenduaren 31n, jakinaraziko da irabazlearen izena.



DORRONSORO
OKINDEGIA

Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jaiegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jaiegunetan: 7:00-14:00

Ogi egin berria
beti zure eskura

AITAN - ETXE
TABERNA

Larramendi, 15
943 55 00 46

MARI FE
ARRANDEGIA

NAGUSIA 36 943 550 489

